

## Helburuak

Osasunerako eskubideak duen garrantziaz hausnartzea.  
Kalitatezko osasun-zerbitzuetara jotzeko daukagun aukeraz jabetzea eta munduan pertsonak askok (batez ere hurrek) daukaten ezintasunarekin konparatzea.

### 1. jarduera

Infografian esaten zaigu begiratzeko munduan dauden ahultasun-egoerei. Ahultasun-egoera horietako bat emigrazioa da.  
Hainbat arrazoik bultzatuta ematen dute pertsonak beren familia eta etxea uzteko eta beste herrialde batera joateko pauso zaila.  
Taldetan jarrita, pentsatu zergati horietako batzuk zein izan daitezkeen. Nahi beste zergati idatz ditzatela.  
Ondoren, talde bakoitzak esan ditzala idatzi dituen zergatiak.  
Pertsona horien lekuan jartzen saiatu eta hausnartu. Zuek nola sentituko zinatekete?

### 2. jarduera

Giza Eskubideen Adierazpena irakurri eta osasunarekin lotura zuzena duten artikulua adierazi.  
Infografian esaten den bezala, osasunerako eskubidea beste eskubide batzuekin lotuta dago. Kasu batzuetan, oso garbi ikusten da lotura hori, baina beste kasu batzuetan ez.  
Jarri ikasleak taldeka, eta eskatu osasunerako eskubidearen eta honako elementu hauetako bakoitzaren artean zer lotura dauden asmatzen saiatzeko:

Elikadura  
Ura eta saneamendua  
Hezkuntza  
Diskriminazioa  
Lana  
Berdintasuna

Horretarako, puntu hauei jarraitu:  
Elementu horiek eskubideek babestuta al daude? Bilatu eta identifikatu.  
Zer-nolako lotura dute elementu horiek osasunerako eskubidearekin? Bilatu haien arteko loturak.  
Batzuk oso nabarmenak dira, baina beste batzuekin harrিতa geratuko zarete.  
Taldeen lana bateratu eta emaitzen inguruan hausnarketa egin.

### 3. jarduera

Infografian hainbat adibide ikusten dira, non pertsonak ez duen bere osasunerako eskubidea gauzatuta ikusten.

Jarri ikasleak taldeka, eta eskatu bilatzeko beste adibide batzuk, non eskubide hori ukatu egiten den, eta esateko zein diren haien sorburuak eta ondorioak.  
Taldeen lana bateratu eta emaitzen inguruan hausnarketa egin.

**Jarduera honen emaitzak baliagarriak izan daitezke klipmetraje bat egiteko.**

### 4. jarduera

Jarri ikasleak lau taldetan.  
Talde bakoitzak gizarteetako osasun-egoerari buruzko adierazleetako biren gainean egingo du lana:  
Emakumeen bizi-itxaropena.  
Urtebete baino gutxiagoko haurtxoen hilkortasun-tasa.

Datuetan sakontzeko, PNUD proposatzen dizuegu informazio-iturri (Garapenerako Nazio Batuen Programa), giza garapenari buruz urtero kaleratzen dituen txostenen bidez. Jarduera hau egiteko, esteka hauek balia ditzakezue; datu estatistiko asko daude horietan, eta lagungarriak izango zaizkizue:

[http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr\\_2019\\_overview\\_-\\_spanish.pdf](http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_2019_overview_-_spanish.pdf)

<http://report.hdr.undp.org/es/>

[http://hdr.undp.org/sites/default/files/2018\\_human\\_development\\_statistical\\_update\\_es.pdf](http://hdr.undp.org/sites/default/files/2018_human_development_statistical_update_es.pdf)

#### **Emakumeen bizi-itxaropena:**

Munduko bi herrialdetako emakumeen bizi-itxaropenaren artean dagoen aldea aipatzen du infografiak.

Ikertu eta bilatu zer faktorek izan dezaketen eragina alde horretan.

Zein da emakumeen batez besteko bizi-itxaropena munduan?

Herrialdeak PNUDez planteatutako lau Giza Garapenaren Indizeen (GGI) arabera sailkatzen baditugu:

Alderik ba al dago GGI baxua, GGI ertaina, GGI altua eta GGI oso altua duten herrialdeetako

emakumeen bizi-itxaropenen artean?

Horrek zer adierazten digu?

#### **Urtebete baino gutxiagoko haurtxoen hilkortasun-tasa:**

Munduko bi herrialdetako haurren hilkortasun-tasen artean dagoen aldea aipatzen du infografiak.

Ikertu eta bilatu zer faktorek izan dezaketen eragina alde horretan.

Nola neurtzen da haurren hilkortasun-tasa?

Zein da munduko batez besteko haurren hilkortasun-tasa?

Herrialdeak PNUDez planteatutako lau Giza Garapenaren Indizeen (GGI) arabera sailkatzen baditugu:

Alderik ba al dago GGI baxua, GGI ertaina, GGI altua eta GGI oso altua duten herrialdeetako haurren

hilkortasun-tasen artean?

Horrek zer adierazten digu?

Egindako lana denen artean bateratu.

**Jarduera honen emaitzak baliagarriak izan daitezke klipmetraje bat egiteko.**

### **5. jarduera**

Jarri ikasleak taldeka, eta esan pentsa dezatela hainbat komunikabidetan agertu den informazio honen inguruan:

**«Obesitatea, besteak beste Espainian, klase sozialik baxuenetan izaten da batik bat.»**

Hausnarketa egin, besteak beste galdera hauek eginez:

Hori zergatik izan daiteke? Ikertu eta bilatu azalpenak.

Horrek zerikusirik ba al du infografian azaltzen den Glasgowko kasuarekin?

Zerikusirik ba al du infografian azaltzen den Boliviako datuarekin?

Denen artean, erantzunak bateratu.